

FUNTSEZKO

ELKARTEAK

Guk, 3D-n inprimatzen duen enpresa bat sortuko dugula kontuan hartuta, 3D inprimagailuaz gain bada horretarako ezinbestekoa den beste baliabide bat: Materiala. Material hori lortzeko, egingo dugun harreman mota erosle eta hornitzaileen artekoa izango da, hau da, behar dugun materialez hornituko gaituzte. Materialaz gain, diseinatzailearen bat beharko dugu taldean. Horretarako, diseinatzaile bat kontratatu beharko dugu.

Guk osatuko dugun aliantzaren oinarria honako hau da: jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatzea. Bestela esanda, guk gure produktua sortzeko beharrezkoa dugun materiala nonbaitetik atera beharko dugu eta material hori ezin dugunez gure baliabideekin eskuratu, enpresa batekin aliantza sortu beharko dugu, behar ditugun produktuak sortzeko materialez hornituko gaituena. Enpresa hori **BQ** izango da. Enpresa honek 3D materiala banatzen du eta material horrekin 3D inprimagailuak edozer inprima dezake..



Modu horretan, 3D inpresorentzako egokia den materiala erosiko diegu gero guk material hori lantzeko. Hala, guk enpresa aurrera eramateko baliabide garrantzitsuenetako (3D inpresorak ere beharko ditugu baina hauek erosi egin beharko ditugu) bat lortuko dugu eta haiek beste bezero bat.

Gure helburua pixkanaka ingurunearentzat jasangarriak diren materialak erabiltzea denez, enpresa garatzen doan heinean material biodegradagarriak banatzen dituen enpresaren bat bilatzen saiatuko gara.

Bestalde, online denda jarriko dugunez banaketarako garraioa ere beharko dugu. Hala eta guztiz ere, erabaki dugu egokiena zuzenean produktuak banatuko dituen enpresa bat kontratatzea edo enpresa horrekin aliatzea dela. Enpresa hori FedEx izango litzake. Hauek gure tailerrean banatu beharreko materiala jasoko lukete eta banaketaz ere beraiek arduratuko lirateke.

Gainera, marketina eta publizitate baliabideak ere beharko ditugu eta horretarako ere enpresa bat kontratatuko dugu.